# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**LEHENDAKARITZA**

**594**

13/1993 DEKRETUA, otsailaren 2koa, Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzordea sortzeko dena.

Azken urte hauetan, kanporako proiekzioa duten ekintzak indartzen ihardun du Eusko Jaurlaritzak, batez ere, Europako Elkartea, herrialde arteko elkarlankidetza, kanpoan diren euskal komunitate eta garapenerako elkarlankidetzaren eremuan.

Orokorrean, Jaurlaritzaren kanpo harremanak koordinatu eta indartzeko, eta bereziki, arlo horietako bakoitzerako, Lehendakaritzaren Idazkaritzaren barruan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia sortu zen apirilaren 23ko 258/1991 Dekretuz.

Arlo horietako bakoitzean, Jaurlaritzako Sailek burututako iharduerak izan eta kanpoan oihartzuna dutenak aurrera eramateko dinamika bat sortu du horrek. Dinamika horrek berak eskatzen du, apirilaren 23ko 258/1991 Dekretuko 6,3 b) atalean ezarritakoa betez, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari bitartekari bat eskuratzea, Jaurlaritzaren Kanpo Harremanak, koordinatuak eta integratuak izan daitezen, hain zuzen ere, pentsatutako helburuak bete eta beren kudeaketa, zuzen eta azkar egin ahal izateko; horrela, ahalik eta eginkortasunik handiena lortuko da eta.

Bestalde, «1993ko erronka» deitutakoak eta Maastrich-en egindako Europako Kontseiluan hartutako akordioek bultzatutako europako integraziorako prozesuaren ondorioek zera aholkatzen dute: Jaurlaritzaren iharduerak ebaluatzeko ata planifikatzeko bide bat ezartzea, Europako Bategiteak ekarriko dituen aldaketei arrakastaz aurre egiteko.

Helburu horiek betetzeko, Sail arteko izaera izango duen organo bat sortzea egokitzat jotzen da. organo hori, batetik, Europako Bategiteak dakarren erronkaren aurrean, Jaurlaritzaren iharduera planifikatzeko eta bultzatzeko organoa litzake; eta bestetik, Jaurlaritzaren kanpo harremanak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak koordinatu behar dituenez (hala ezarrita baitu), Idazkaritza horri laguntzeko organoa litzateke.

Hori dela eta, Lehendakaritzaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko otsailaren 2an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Sortzea eta atxikitzea

Lehendakaritzari atxikituta, Sail arteko Kanpo Harremanetarako Batzordea sortu da, batetik, Europako Bategiteak dakartzan eskakizunei egokitzeko prozesua bultzatzeko organo lez eta apirilaren 23ko 258/1991 Dekretuko 6. atalean ezarritakoaren arabera, Jaurlaritzaren Kanpo Harremanak koordinatzea, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagokionez, Idazkaritza horri, koordinatze lanetan laguntzeko organo lez.

*2. atala.*– Osakera

**PRESIDENCIA**

**594**

DECRETO 13/1993, de 2 de febrero, por el que se crea la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior.

El Gobierno Vasco viene desarrollando en los últimos años una potenciación de sus actividades con proyección externa, fundamentalmente en los ámbitos de la Comunidad Europea, de la cooperación interregional, de las relaciones con las colectividades vascas en el exterior y de la cooperación al desarrollo.

Para impulsar y coordinar la acción exterior del Gobierno, en general, y en cada uno de estos campos, en particular, se creó dentro de la Secretaría de la Presidencia, mediante el Decreto 258/1991, de 23 de abril, la Secretaría General de Acción Exterior.

Ambas circunstancias unidas han generado una dinámica de desarrollo de las actividades de relevancia externa por los diferentes Departamentos del Gobierno en cada uno de estos ámbitos que aconseja facilitar a la Secretaría General de Acción Exterior, en aplicación del artículo 6,3 b) del Decreto 258/1991, de 23 de abril, un medio para asegurar una acción exterior del Gobierno coordinada e integrada que permita realizar los objetivos enunciados y agilizar su correcta gestión de forma que se logre la máxima eficacia.

Por otra parte, las repercusiones del llamado «desafío 1993» y del proceso de integración europea impulsado con los acuerdos adoptados en el Consejo Europeo celebrado en Maastrich aconsejan, a su vez, el establecimiento de un cauce para la evaluación y planificación conjunta de las actuaciones del Gobierno a fin de afrontar con éxito los cambios que deriven del proceso de Unión Europea.

Para el cumplimiento de estos objetivos, se estima conveniente la creación de un órgano de carácter interdepartamental que se configura, de una parte, como órgano de impulso y planificación de la acción del Gobierno frente al reto de la Unión Europea y, de otra parte, como órgano de apoyo a la Secretaría General de Acción Exterior en la función de coordinación de la acción exterior del Gobierno que tiene encomendada.

Por todo ello, a propuesta de la Presidencia, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión de 2 de febrero de 1993,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Creación y adscripción

Se crea, adscrita a Lehendakaritza, la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior como órgano de impulso del proceso de adaptación a las exigencias de la Unión Europea y como órgano de apoyo a la Secretaría General de Acción Exterior en la función de coordinación de la acción exterior del Gobierno que corresponde a ésta, en virtud del artículo 6 del Decreto 258/1991, de 23 de abril.

*Artículo 2.*– Composición

1.– Departamendu arteko Kanpo Harremanetarako Batzordea osatuko dutenak honako hauek izango dira:

– Lehendakaria: Lehendakaritzako Idazkaria.

– Bokalak: Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia, eta Jaurlaritzako Lehendakaritzaorde eta Sail bakoitzeko ordezkari bat, Sailburuorde maila duena, Lehendakariak izendatutakoa, kasuan kasuko Lehendakariorde zein Sailburuaren proposamenez.

– Idazkaria: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko Europako Gaietarako Zuzendaria.

2.– Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiak ordezkatuko du Lehendakaria, hau ez bada etortzen edo gaisorik badago.

3.– Kasuan kasuko Bilkurako Gai zerrendako gairen batek eraginpean hartzen dituen Entitate eta Instituzioei dei egin ahal izango die Lehendakariak, besteak beste, Kamara Ofizialei, Enpresa Erakundeei, sindikatuei, gobernukoak ez diren Erakundeei, eta beste Instituzio nahiz Administrazioetako ordezkariei. Hitza emango zaie baina ez dute botua ematerik izango.

4.– Beren iharduerengatik edo ezaguerengatik, Batzordeari lagun diezaioketen pertsonei ere dei egin ahal izango die Lehendakariak. Hitza emango zaie, ez, ordea, botua emateko aukera.

*3. atala.*– Betekizunak

1.– Jaurlaritzaren kanpo Harremanak koordinatuak eta integratuak izan daitezen, neurriak hartzea izango da Sail arteko Batzordearen zeregina, orohar.

2.– Bereziki, honako hauek izango dira bere egitekoak:

a) Europako Bategiteko Itunea gauzatzeak gugan izango dituen ondorioak ebaluatu eta aztertzea, Europako Bategiteak ekarriko dituen aldaketei arrakastaz aurre egiteko behar diren neurriak hartuz.

b) Europako Komunitateetako kide izatearen ondorioz Jaurlaritzak egin beharreko iharduerak bultzatzea.

c) Europako Kontseilukoak izan eta Europako Eskualdeentzat zabalik dauden programetan, Autonomi Elkarteak parte hartzeko izan dezakeen aukera aztertzea.

d) Jaurlaritzaren iharduera arlo desberdinetan, mugarteko eta eskualde arteko lankidetza aurrera eramateko neurriak aztertzea.

e) Europako Eskualdeen Elkarteetan Autonomi Elkartearen partaidetza benetakoa eta eraginkorra izan dadila bermatuko duten neurriak hartzea, bereziki, E.E.B.ak emandako lanak kontutan hartuz.

f) Kanpoan dauden euskal komunitateei dagokienez, sailetako iharduerak aurrera eramateko dauden aukerak aztertzea.

g) Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak egindako garapenerako lankidetzako politikan, Sailek, partaidetzarako eta lankidetzarako izan ditzaketen aukerak aztertzea.

h) Arlo horietako bakoitzean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak proposatutako koordinazio neurriak aztertzea.

*4. atala.*– Funtzionamendua

1.– Batzordeak Osoko Bilkuratan eta Sekzioka ihardungo du.

1.– La Comisión Interdepartamental de Acción Exterior estará compuesta por los siguientes miembros:

– Presidente: El Secretario de la Presidencia.

– Vocales: El Secretario General de Acción Exterior y un representante con rango de Viceconsejero de cada una de las Vicepresidencias y Departamentos del Gobierno designados por el Lehendakari a propuesta de los respectivos Vicepresidentes o Consejeros.

– Secretario: El Director para Asuntos Europeos de la Secretaría General de Acción Exterior.

2.– El Secretario General de Acción Exterior sustituirá al Presidente en los casos de ausencia o enfermedad.

3.– El Presidente podrá convocar para asistir a las reuniones, con voz pero sin voto, a representantes de entidades e Instituciones especialmente afectadas por los asuntos del Orden del Día de la Sesión correspondiente, tales como las Cámaras Oficiales, Asociaciones empresariales, sindicatos, organizaciones no gubernamentales y representantes de otras Administraciones o Instituciones.

4.– Podrán ser convocados por el Presidente, igualmente con voz pero sin voto, aquellas personas que por sus actividades y conocimientos puedan contribuir al mejor asesoramiento de la Comisión.

*Artículo 3.*– Funciones

1.– Con carácter general, a la Comisión Interdepartamental le corresponde analizar las medidas que contribuyan a una acción exterior del Gobierno coordinada e integrada.

2.– En particular, le corresponde las siguientes funciones:

a) Analizar y evaluar las repercusiones en el ámbito interno de la puesta en práctica del Tratado de Unión Europea, proponiendo cuantas medidas sean oportunas para afrontar con éxito los cambios que deriven del proceso de Unión Europea.

b) Impulsar las actuaciones del Gobierno derivadas de la pertenencia a las Comunidades Europeas.

c) Estudiar las posibilidades de participación de la Comunidad Autónoma en los programas del Consejo de Europa abiertos a las regiones europeas.

d) Examinar las medidas para el desarrollo de la cooperación transfronteriza e interregional en las distintas áreas de acción del Gobierno.

e) Proponer las acciones necesarias que garanticen la participación efectiva y eficaz de la Comunidad Autónoma en las Asociaciones Regionales Europeas, con especial atención a los trabajos de la A.R.E.

f) Analizar las diferentes posibilidades de desarrollo de acciones departamentales en relación con las Colectividades Vascas en el exterior.

g) Tratar los posibles cauces de participación y colaboración de los Departamentos en la política de cooperación al desarrollo llevada a cabo por la Secretaría General de Acción Exterior.

h) Debatir sobre las medidas de coordinación que, en cada uno de estos ámbitos, proponga la Secretaría General de Acción Exterior.

*Artículo 4.*– Funcionamiento

1.– La Comisión actuará en Pleno y en Secciones.

2.– Sail arteko Batzordearen Osoko Bilkura, 2. atalean zehazten diren kide guztiek osatuko dute, eta gutxienez, bi hilean behin batuko dira.

3.– Arlo berezietan, Osoko Bilkurako kide jakin batzuen laguntza behar denean, Sail arteko Batzordeko zereginen gauzatze eta segimendurako Sekzioak osatu ahal izango dira.

Sekzioek egokitzat jotzen baldin badute, aztertuko dituzten gaiei dagokienez, sekziokoa ez izan eta beste sail batekoa den ordezkari batek, eskubide osoz parte hartu ahal izango du.

Sekzioen eraketa, osakera eta eskuduntzak, Lehendakaritzako Idazkariaren Erabakiz ezarriko dira, Batzarreko Osoko Bilkuraren proposamenez.

4.– Osoko Bilkurak edo Sekzioek aztertu beharreko gaiak prestatu eta aztertzeko Lantalde Teknikoak, iraunkorrak nahiz bereziak, egin ahal izango dira. Horiek osatzea, Osoko Bilkurak erabakiko du, edo, kasuan kasu, dagokion Sekzioak.

*5. atala.*– Idazkaritza

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko Europako Gaietarako Zuzendaritzari dagokio Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzordearen Idazkaritza.

*6. atala.*– Barne araudia

Batzordeak berak ezarriko ditu bertako funtzionamendurako arauak, eta hala egin ezean, Adminstrazioaren Jardunbideari buruzko Legeko I Idazpuruko II. Atalburuan xedatutakoari edo horren ordezko xedapenetan ezarritakoarai jarraituko zaio.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Dekretu honen bidez sortzen den Batzorde hau hilebeteko epean osatuko da, indarrean sartzen den egunetik hasita.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

2. atalean ezarritakoa betetzeko, Sailetako Lehendakariordeek eta Sailburuek, atal horretan aipatzen diren ordezkariak proposatuko dituzte, Dekretu hau indarrean sartzen denetik hamabost eguneko epean.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunenean hartuko du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko otsailak 2.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

2.– El Pleno de la Comisión Interdepartamental estará integrado por todos los miembros de acuerdo con el artículo 2 y se reunirá con una periodicidad como mínimo bimensual.

3.– Podrán ser constituidas Secciones para el seguimiento y realización de las funciones de la Comisión Interdepartamental en áreas específicas que requieran la presencia de determinados miembros del Pleno.

Cuando las Secciones lo estimen oportuno, en relación con los temas a tratar, podrá incorporarse como miembro de pleno derecho a la correspondiente reunión un representante de otro Departamento que no integre formalmente la sección.

La constitución, composición y atribuciones de las Secciones se fijarán por Resolución del Secretario de la Presidencia, a propuesta del Pleno de la Comisión.

4.– Para el estudio y preparación de los asuntos que se sometan a la consideración del Pleno o de las Secciones podrán ser constituidas las Ponencias Técnicas, permanentes o especiales. Su constitución será acordada por el Pleno, o, en su caso, por las Secciones correspondientes.

*Artículo 5.*– Secretaría

La Secretaría de la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior corresponderá a la Dirección para Asuntos Europeos de la Secretaría General de Acción Exterior.

*Artículo 6.*– Régimen interno

La Comisión establecerá sus propias normas de funcionamiento o, en su defecto, se regirá por lo dispuesto en el Capítulo II del Título I de la Ley de Procedimiento Administrativo o por las disposiciones que lo sustituyan.

DISPOSICION ADICIONAL

La Comisión creada por el presente Decreto se constituirá dentro del plazo de un mes, a contar desde el día de su entrada en vigor.

DISPOSICION TRANSITORIA

Al objeto de dar cumplimiento a lo previsto en el artículo 2, los Vicepresidentes y los Consejeros de los Departamentos propondrán a los representantes a que se refiere dicho artículo en el plazo de 15 días naturales a contar desde la entrada en vigor del presente Decreto.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de febrero de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.